

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRURAKO UDALA

*Iragarkia*

2023ko martxoaren 28ko Udaltzatik «Izurako eragin linguistikoaren ebaluazioa arautzeko ordenantza»ri hasierako onespina eman ziolarik, espedientea jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean, 2023ko martxoaren 30etik apirilaren 30a arte. Aipatu epean inolako erreklamaziorik ez eta oharpenik jaso ez denez, behin betikoz onartutzat jotzen da eta testu osoa argitaratzen da, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoa beteaz, 65.2. artikuluan ezarritako epea burutzen denean.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Irura, 2023ko abuztuaren 22a.—Alkatea. (6304)

ERANSKINA

*Eragin linguistikoaren ebaluazioa arautzeko Ordenantza.*

HITZAURREA

Errealitatearen eta indarrean dagoen legediaren arabera, Oartzungo berezko hizkuntza euskara da. Ordenantza honen helburua da, batetik, Izurako egoera soziolinguistikoa eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea. Bestetik, euskararen erabilera normalizatzeke onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea, eta ondorioz, neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.

Autonomia Estatutuaren 6. artikuluari jarraiki, eta hizkuntza alorrean garatzen duen legediari ere –funtsean 10/1982 Legea, azaroaren 24koa–, Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza euskara da. Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 7. atalak honakoa xedatzen du: «Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoa eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezake-ten inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira».

Besteak beste, aipaturiko artikulua hori garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zioen azalpenean, argi adierazten du hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak izatera irekia daukala eta izatera

AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Anuncio*

Aprobada inicialmente por el Pleno del Ayuntamiento en sesión ordinaria celebrada el día 28 de marzo de 2023, la «Ordenanza reguladora de la evaluación de impacto lingüístico de Irura», y habiéndose sometido el expediente a información pública durante el plazo de 30 días a contar desde el 30 de marzo hasta el 30 de abril de 2023, no se ha presentado reclamación u observación alguna a la misma, por lo que se entiende aprobada definitivamente y se publica íntegramente a efectos de dar cumplimiento a lo preceptuado en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, entrando en vigor la mencionada modificación, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente hábil a la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Irura, a 22 de agosto de 2023.—El alcalde. (6304)

ANEXO

*Ordenanza reguladora de la evaluación de impacto lingüístico.*

PRÉAMBULO

Según la realidad y la legislación vigente, la lengua propia del municipio de Irura es el euskera. La presente Ordenanza tiene por objeto, por un lado, incrementar los aspectos lingüísticos y la normalización del uso del euskera en los procedimientos de elaboración y aprobación y autorización o habilitación de planes y proyectos que puedan afectar a la situación sociolingüística de Irura. Por otro lado, analizar y tomar en consideración las opciones más beneficiosas para la normalización del uso del euskera y, en consecuencia, diseñar medidas para prevenir, corregir y, en su caso, compensar los efectos negativos sobre la normalización del uso del euskera.

En virtud del artículo 6 del Estatuto de Autonomía y de la legislación que desarrolla en materia lingüística, fundamentalmente la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, la lengua propia de la Comunidad Autónoma del País Vasco es el euskera. El apartado 7 del artículo 7 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, dispone que «En el procedimiento de aprobación de proyectos o planes que puedan afectar a la situación sociolingüística de los municipios, se evaluará su posible impacto respecto a la normalización del uso del euskera y se propondrán las medidas derivadas de esa evaluación que se estimen pertinentes».

Entre otras cosas, el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, en su exposición de motivos, desarrolla el citado artículo, en el que se pone de manifiesto el carácter abierto y razonable de la Evaluación

hori arrazoizkoa dela, bai administrazio-jardueraren sinplifikazio-printzipioaren ikuspegitik bai hizkuntza politikako tresna gisa izan behar duen efikaziagatik. Ondoren, zehazten du: «...gai honetan ere udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxienezko irizpide batzuk betez. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak udalei aukera aski handia ematen die egoera malgutasunez aztertu eta baloratzeko, halako eran non sistema malgu bat eskaintzen bazaie udalei, planifikatzeko eta programatzeko garaian hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren abantaila balia daitezkeen».

Horrenbestez, ordenantza testu artikulatua, lehenik eta behin, xedapen orokor multzo batek aditzera ematen ditu erregelamendu honen oinarri eta printzipio orokorrak. Jarraiki ebaluatu behar diren planak eta proiektuak zehazten dira, baita organo arduraduna ere. Ondoren, ebaluazioa egiteko erabiliko den metodologia zehazten da. Amaitzeko, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenaren onarpena eta bere eraginkortasuna azaltzen dira.

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Helburuak eta aplikazio eremua.

1. Ordenantza honek Iruran gauzatzen diren plan eta proiektu pribatu zein publikoek bertako euskararen errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea du helburu nagusia, beti ere udalak dituen eskumenen barruan.

2. Hortaz, euskararen aldeko konpromiso publikoa hartzeaz gain, Irurako Udalak nahi du gainerako erakunde publiko eta politikoen, erakunde pribatuen eta gizarte zibilak helburu bera abian jartzeko neurriak har ditzatela, eta horretarako lankidetzat bilatu du udalerrian gauzatzen diren egitasmoek, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzeko xedearekin.

3. Xede horretan, elkar hartuta joan beharko dute ikuspegi teknikoak, juridikoak eta sozialak udalerrian gauzatzen diren egitasmo publikoak eta jarduerak pribatuak euskararen sustapenari kalterik ez egitea lortzeko. Horregatik, ordenantza hau Irurako udal administrazioari eta berarekin loturaren bat duten edo bere esku dauden erakunde autonomo eta publikoei aplikatuko zaie, baita udalerriaren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen udalerriaz gaindiko eremuko proiektuak eta planak onartzeko prozedurei ere. Udalarekin lankidetzat hitzarmenak sinatzen dituzten edota udalaren dirulaguntzaren bat jaso duten erakunde pribatuei ere aplikatuko zaie.

#### 2. artikulua. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa.

Aurreko artikuluan aipatutako xedea betetzeko, araudi honek eragin linguistikoaren ebaluatzeko tresna erabiliko du. Ebaluazio honen helburu hauek nahi dira lortu:

a) Udalerriaren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak, ordenantza eta erregelamenduak, egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haien baimena edo gaitzuntza emateko prozeduretan, hizkuntza alderdiak eta euskararen erabilieraren normalizazioa gehitzea.

b) Euskararen erabilera normalizatzeko onuragarriak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea.

c) Neurriak diseinatzea, euskararen erabilieraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko. Era berean, euskararen mesedetan egin daitezkeen plan eta proiektuak, ordenantza eta erregelamenduak, ebaluatzea eta zuzentzea, hala badagokio.

de Impacto Lingüístico, tanto desde el punto de vista del principio de simplificación de la actividad administrativa como de su eficacia como instrumento de política lingüística. Concreta a continuación: «...También en esta materia se ha optado por garantizar un amplio margen de disponibilidad a cada municipio para que, a partir de unos criterios mínimos, ejerza como mejor crea conveniente su responsabilidad en materia de normalización lingüística. La evaluación de impacto lingüístico garantiza un margen de apreciación y valoración importante a los municipios, de tal manera que se posibilite un sistema flexible a aquellos municipios que deseen servirse de los beneficios de la evaluación del impacto lingüístico a la hora de planificar y programar».

En consecuencia, el texto articulado de la Ordenanza señala, en primer lugar, un conjunto de disposiciones de carácter general, las bases y principios generales del presente reglamento. A continuación, se detallan los planes y proyectos a evaluar, así como el órgano responsable. Y se detalla la metodología utilizada para realizar la evaluación. Finalmente, se expone la aprobación del informe de evaluación de impacto ambiental y su eficacia.

## CAPÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1. Objetivos y ámbito de aplicación.

1. La presente ordenanza tiene como objetivo principal la previsión, identificación y evaluación de los posibles efectos que sobre la realidad lingüística del euskera puedan tener los planes y proyectos privados o públicos que se lleven a cabo en Irura, dentro del ámbito de las competencias municipales.

2. Por lo tanto, el Ayuntamiento de Irura, además de asumir un compromiso público a favor del euskera, quiere que el resto de las instituciones públicas y políticas, entidades privadas y la sociedad civil adopten medidas con el mismo objetivo. Para ello, ha buscado su colaboración, para que en los proyectos que se llevan a cabo en el municipio, con el objetivo de adoptar medidas para reducirlos y prevenirlos en caso de que perjudiquen la situación del euskera y de la comunidad de vascoparlantes.

3. A tal fin, deberán ir de la mano los enfoques técnicos, políticos, jurídicos y sociales para conseguir que los proyectos públicos y la actividad privada en el municipio no perjudiquen al euskera. Por ello, la presente Ordenanza será de aplicación a la Administración Municipal de Irura y a los organismos autónomos y públicos vinculados o dependientes de ella, así como a los procedimientos de aprobación de proyectos y planes de ámbito supramunicipal que puedan afectar a la situación sociolingüística de los municipios. También será de aplicación a las entidades privadas que suscriban convenios de colaboración con el Ayuntamiento o hayan recibido subvención municipal.

#### Artículo 2. Evaluación de Impacto Lingüístico.

Para el cumplimiento del objetivo señalado en el artículo anterior, la presente normativa utilizará la herramienta de evaluación de impacto lingüístico. Los objetivos que se persiguen con esta evaluación son:

a) Incorporar aspectos lingüísticos y de la normalización del uso del euskera en la elaboración y aprobación de los planes y proyectos, ordenanzas y reglamentos, que puedan afectar a la situación sociolingüística del municipio, así como en los procedimientos de autorización o habilitación de los mismos.

b) Analizar y considerar las opciones más favorables para la normalización del uso del euskera.

c) Diseñar medidas para prevenir, corregir y, en su caso, compensar los efectos negativos sobre la normalización del uso del euskera. Asimismo, evaluar y dirigir, en su caso, los planes y proyectos, que puedan formularse en beneficio del euskera.

### 3. artikulua. Printzipio orokorrak.

#### 1. Zeharkakotasuna.

Ordenantza honek, udalerrian hizkuntzari eragiten dioten egitasmoak ebaluatzeko tresna izaki, erabateko zeharkakotasuna du udal administrazioaren eta herriko egitasmoen gainean. Zentzu horretan, ordenantza honetan ezartzen diren irizpideek, hizkuntza politika izaki, udal egitasmo guztiei eragingo die, eta ondorioz, sail eta proiektu guztietara hedatu beharko da.

#### 2. Zuhurtzia eta prebentzioa.

Udalerrian onartzen den edozein proiektu edo egitasmo publiko edo pribaturen aurrean zuhurtziaz jokatu behar da; izan ere, euskararen gaineko nolako eragina izango lukeen zalantza izanez gero, gaia tentuz aztertzea eskatzen da, eta prebentzioa jokatzea.

Irurako Udalak aukera onenak baliatuko ditu planak onartu edo proiektuei baimena edo gaikuntza ematen dienean, inpaktu kaltegarriak ahalik eta txikiak izan daitezen, eta, behar izanez gero, inpaktu horiek konpentsatzeko.

Horregatik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-prozedura hasieratik sartuko da plana onartzeko edo proiektuari baimena edo gaikuntza emateko funtsezko prozeduran; eta, ebaluazioa amaituko da plana behin betiko onartu edo proiektua behin betiko baimendu aurretik.

#### 3. Lurralde-antolaketa hizkuntzen antolaketa aintzat hartzea.

Udalerrian kontuan izan beharko da, norbanakoak euskalduntzeaz gain, espazioak (geografikoak zein funtzionalak) euskalduntzea ezinbestekoa dela, hizkuntza-normalizatuko bada.

Horretarako, Lurralde Antolamendurako Gidalerro edo arau orokorretatik hasi eta lurralde-antolaketa eta hirigintza gainerako oinarrietan hizkuntzaren antolaketa aintzat hartu beharrekoa da.

#### 4. Ebaluazioaren kalitate teknikoa.

Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren kalitate teknikoa ziurtatzea ezinbestekoa denez, berauburutzeko metodologia zehatz bat jarraitzea beharrekoa da. Horretarako, sustatzaile pribatuek Irurako Udalak beharrezkotzat jotzen dituen datu guztiak helarazi beharko dizkio. Gainera, honako puntu hauek barne bilduko ditu:

- Interesdunen eta herritarren parte-hartzea.
- Prebentzioa, neurri zuzenketa eta, behar izanez gero, konpentsazio-neurriak.
- Konfidentzialtasuna.

### 4. artikulua. Eskumena.

Udal ordenantza hau 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetako buruzkoaren 7. artikulua eta hizkuntzari dagokion gainerako legeetan adierazitakoaren babesean garatzen da. Zehazki, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoaren babesean garatzen da.

## II. KAPITULUA

### 6PLANEN ETA PROIEKTUEN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEA

#### 5. artikulua. Ebaluatu behar diren plan eta proiektuak.

1. Irurako udalerrian behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da, bai eta horien funtsezko aldatetena ere, baldin eta euskararen erabilera eragina izango badute:

### Artículo 3. Principios generales.

#### 1. Transversalidad.

Esta Ordenanza, como instrumento de evaluación de los proyectos que afectan a la lengua en el municipio, tiene una plena transversalidad sobre los proyectos de la localidad. En este sentido, los criterios que se establecen en esta ordenanza, al tratarse de una política lingüística, afectarán a todos los proyectos municipales y, en consecuencia, deberán extenderse a todos los departamentos y proyectos.

#### 2. Cautela y prevención.

Hay que actuar con cautela ante cualquier plan o proyecto, público o privado, que se apruebe en el municipio, ya que en caso de duda sobre el impacto que tendría sobre el euskera se pide que se analice el tema con detenimiento. Y actuar de forma preventiva.

El Ayuntamiento de Irura aprovechará las mejores posibilidades, al aprobar planes o autorizar o habilitar proyectos, para minimizar y, en su caso, compensar los impactos negativos.

Por ello, el procedimiento de evaluación del impacto lingüístico se integrará desde su inicio en el procedimiento fundamental para la aprobación del plan o de autorización o habilitación del proyecto, finalizando la evaluación antes de la aprobación definitiva del plan o de la autorización definitiva del proyecto.

#### 3. Integrar la organización lingüística en la organización territorial.

En el municipio habrá que tener en cuenta que, además de la euskaldunización individual, la euskaldunización de espacios, (tanto geográficos como funcionales), es imprescindible para la normalización lingüística.

Para ello, desde las Directrices de Ordenación del Territorio o normas generales, se debe tener en cuenta la ordenación lingüística en el resto de las bases de la ordenación territorial.

#### 4. Calidad técnica de la evaluación.

Dado que es imprescindible asegurar la calidad técnica de la evaluación de impacto lingüístico, es necesario seguir una metodología concreta para llevarla a cabo. A tal efecto, las personas o entidades promotoras privadas deberán facilitar al Ayuntamiento de Irura cuantos datos considere necesarios. Además, contendrá los siguientes puntos:

- Participación de las personas interesadas y de la ciudadanía.
- Prevención, corrección y en su caso medidas compensatorias.
- Confidencialidad.

### Artículo 4. Competencia.

La presente ordenanza municipal se desarrolla al amparo del artículo 7 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y el resto de legislación lingüística. En concreto, se desarrolla al amparo del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.

## CAPÍTULO II

### EVALUACIÓN DEL IMPACTO LINGÜÍSTICO DE PLANES Y PROYECTOS

#### Artículo 5. Planes y proyectos a evaluar.

1. Todos los planes y proyectos que afecten al idioma en el municipio de Irura deberán ser evaluados. Los principales tipos de planes y proyectos que pueden tener impacto lingüístico serán:

a) Planak:

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
- Sektorizatze-plana.
- Plangintzako Arau subsidiarioak.
- Plan partzialak.
- Hiri-antolamenduko plan bereziak.
- Turismo-planak.

b) Proiektuak:

- Merkataritzagune handiak eraikitzeo proiektuak.
- Industriadunak eta teknologia-parkeak eraikitzeo proiektuak.

Gainera, biztanle eta bisitari hazkundera ekar dezaketen bestelako plan eta proiektuak ere ebaluatuko dira; hala nola:

- Bizitegi eraikuntzarekin zerikusia plan edo proiektu guztiak.
- Fabrikak eraikuntzarekin zerikusia duten plan edo proiektu guztiak.
- Merkataritza-eraikinak eraikitzeo plan edo proiektu guztiak.
- Zerbitzu ekipamenduetan eraikitzeo proiektuak: kiroldegia, zahar egoitzak, kultur etxeak, zentro zibikoak eta abar.

Nahiz eta eraikin berriak ez izan, aipatu erabileretarako zaharberritze proiektuak:

- Antzerkiarekin, musikarekin edo bestelako kultur ekimenean lotutako jaialdiak.
- Aisialdiari lotutako plan eta proiektuak: aisialdiari lotutako parkeak eraikitzea, aisialdi guneak eraikitzea eta abar.
- Turismo bisitariak erakarriko dituzten plan eta proiektuak: museoak, hotelak edota interpretazio zentroak eraikitzea, ibilbide gidatuak sortzea eta abar.

Azkenik, herritarren hizkuntza ohiturak aldatzen dituzten planak ere ebaluatuko dira. Merkataritza planak, kultura planak, aniztasun planak eta biziberritze planak.

2. Ebaluaziotik salbuetsita egongo dira:

- Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.
- Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.
- Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuak, berariaz oinarritako proiektuak kontrakorik esaten ez duen kasuetan izan ezik.

3. Aurreko apartatuan adierazitako kasuetako plan eta proiektuei onarpena, baimena edo gaikuntza emateko funtsezko espedienteetan, egoera horren berri jasotzen duen txosten bat erantsi beharko da.

6. artikulua. *Udal eskumenekoak ez diren plan eta proiektuak.*

Udal eskumenekoak ez diren eta beste administrazio publiko batzuek onartzekoak diren planen eta proiektuen hizkuntza-inpaktuari buruzko ebaluazioa ere egingo da.

Udalerrien egoera soziolinguistikoa eragina izan dezaketen udalerrien gaineko proiektuak eta planak onartzeko prozeduran, planak eta proiektuak ebaluatzeko eskumena daukan ELE batzordeak haien hizkuntza-inpaktua aztertuko du.

Ondorioz, ebaluatuko diren egitasmo guztiak udal mailakoak izango dira, nahiz eta beste erakunde publikoek sustatu. Kasu

a) Planes:

- Planes Generales de Ordenación Urbana.
- Plan de compatibilización del planeamiento general.
- Plan de sectorización.
- Normas subsidiarias de planeamiento.
- Planes parciales.
- Planes especiales de ordenación urbana.
- Planes de turismo.

b) Proyectos:

- Proyectos de construcción de grandes centros comerciales.
- Proyectos de construcción de polígonos industriales y parques tecnológicos.

Además, se evaluarán otros planes y proyectos que puedan suponer un incremento de población y visitantes, tales como:

- Todos los planes o proyectos relacionados con la edificación residencial.
- Todos los planes o proyectos relacionados con la construcción de fábricas.
- Todos los planes o proyectos de construcción de edificios comerciales.
- Proyectos de construcción de equipamientos de servicios: polideportivos, residencias, centros culturales, cívicos, etc.

Aunque no supongan nueva edificación, los proyectos de rehabilitación destinados a los usos mencionados:

- Festivales relacionados con teatro, música u otras iniciativas culturales.
- Planes y proyectos relacionados con el ocio: construcción de parques de ocio, construcción de espacios de ocio, etc.
- Planes y proyectos que atraigan al turismo: construcción de museos, hoteles, centros de interpretación, creación de itinerarios guiados, etc.

Por último, se evaluarán los planes que puedan suponer un cambio en los hábitos lingüísticos de la localidad, como son los planes de comercio, los planes de cultura, los planes de diversidad y los planes de revitalización.

2. Estarán exentos de la evaluación:

- Modificaciones no sustanciales en planes o proyectos.
- La aprobación de planes que no supongan impacto lingüístico y la autorización o habilitación de proyectos.
- Proyectos derivados de un plan con evaluación lingüística previa, salvo que el proyecto básico disponga lo contrario.

3. En el expediente sustantivo de aprobación, autorización o habilitación de los planes y proyectos en los supuestos contemplados en el apartado anterior deberá adjuntarse un informe en el que se haga constar tal circunstancia.

Artículo 6. *Planes y proyectos que no sean de competencia municipal.*

También se realizará una evaluación del impacto lingüístico de los planes y proyectos que no sean de competencia municipal y cuya aprobación corresponda a otras administraciones públicas.

En el procedimiento de aprobación de proyectos y planes supramunicipales que puedan afectar a la situación sociolingüística de los municipios, la comisión de ELE competente para la evaluación de los planes y proyectos analizará su impacto lingüístico.

En consecuencia, todos los proyectos objeto de evaluación tendrán carácter municipal, aunque sean promovidos por otros



horretan ere Irurako Udalak egin beharko du ebaluazioa, eta udalerriz gaindiko plana egitea dagokion erakundeari azterketa-  
ren ondorioen berri emango dio.

#### 7. artikulua. ELE batzordea izendatzea.

Udalak plan eta proiektuen eragin linguistikoaren ebalua-  
zioaz arduratuko den batzordea izendatuko du eta eskumena ai-  
tortuko dio udalerrian garatuko diren plan eta proiektuen hiz-  
kuntza-inpaktuaren gaineko erabakiak hartzeko.

ELE batzordea kide hauek osatuko dute, gutxienez:

- Euskara arloko zinegotzia.
- Euskara teknikaria edo funtzio horiek betetzen dituen.
- Ebaluatzen den egitasmoaren inguruko arloko udal tekni-  
karia(k).
- UEMAko teknikaria.

#### 8. artikulua. ELE batzordearen egitekoa.

ELE batzordea arduratuko da udalerrian garatuko diren plan  
eta proiektuei eragin linguistikoaren ebaluazioa egingo zaiela  
ziurtatzeaz. Horretarako, udalerrian abian jarri nahi diren plan  
eta proiektuen jarraipena egingo du. Horien berri izan bezain las-  
ter, plan edo proiektua garatzen hasi aurretik, organo susta-  
zaileari aholkatuko dio euskararentzat mesedegarriak diren  
funtsezko alderdiak zeintzuk diren, eta horiek jasotzeko gomen-  
dinoa egingo dio.

Behin plan edo proiektuaren aurrerakin txostena dagoenean,  
ELE batzordeak irismen dokumentua egingo du, eta erabakiko  
du hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar ote den.

Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar dela ondorioz-  
tatuz gero, ELE batzordeak erabakiko du azterlana nork idatziko  
duen: udal teknikariak, ELEn aditua den pertsona ala erakundea  
kontratatu duen, edo sustatzailea enpresa pribatua bada, en-  
presari eskatuko zaion egiteko.

Dena dela, inpaktuaren azterlanaren azken erabakia udalarena  
izango da. Horregatik, inpaktuaren azterlana egiteko metodologiak  
eskatzen dituen galdetegiak betetzeaz, neurri zuzentzaileak  
proposatzeaz eta azken erabakiak hartzeaz ELE batzordea ardu-  
ratuko da.

ELE batzordeak inpaktuaren azterlana kanpoko enpresa ba-  
tek egina jasoko balu, azterlana oinarri hartuta erabakiko du  
plana edo proiektua bideragarria den bere horretan, beste neurri  
zuzentzaile batzuk proposatu behar diren edo kontrako txostena  
egingo duen.

#### 9. artikulua. Prozedura.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administra-  
zioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eta Udaleri  
Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Eragin Linguistikoaren  
Ebaluaziorako (ELE) adostu duten metodologia erabiliko da eta  
ezin izango da beste metodologiari erabili. Honako prozedura  
izango du:

9.1. Hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea. Lehenengo  
pausoa irismen dokumentua egitea izango da.

Plan edo proiektu batek udalaxean edo aztertzen den ere-  
muan euskararen erabilera eraginik eduki dezakeen aztertze-  
rakoan, adierazle hauek kontuan hartuko dira:

- a) Aldaketak, udalerriko biztanle kopuruan.
- b) Aldaketak, udalerria bisitatzeko dutenen kopuruan.
- c) Bestelako eraginak, udalerraren egoera soziolinguisti-  
koan.

Adierazleak aztertu ondoren, udal zerbitzu teknikoek hizkuntza-  
azterlanaren irismenari buruzko txostena bidaliko diote plan edo  
proiektuari funtsezko onarpena emateko eskumena duen udal or-  
gano eskudunari.

organismos públicos. En este caso, también será el Ayuntamien-  
to de Irura, el encargado de realizar la evaluación y de informar  
al organismo correspondiente de las conclusiones del estudio.

#### Artículo 7. Nombramiento Comité ELE.

El ayuntamiento designará una comisión encargada de la  
evaluación del impacto lingüístico de los planes y proyectos y le  
reconocerá la competencia para decidir sobre el impacto lingüís-  
tico de los planes y proyectos que se desarrollen en el municipio.

La Comisión ELE estará compuesta, al menos, por los si-  
guientes miembros:

- Titular de la concejalía del área de euskera.
- Personal técnico de euskera o persona que ejerza dichas  
funciones.
- Personal técnico municipal en el área del proyecto que se  
evalúa.
- Personal técnico de UEMA.

#### Artículo 8. Función de la Comisión de evaluación.

La comisión de ELE será la encargada de que se realice la  
evaluación del impacto lingüístico de los planes y proyectos que  
se desarrollen en el municipio. Para ello, realizará el seguimiento  
de los planes y proyectos que se pretendan poner en marcha en  
el municipio. Tan pronto como tengan conocimiento de los mis-  
mos, antes de iniciar el desarrollo del plan o proyecto, asesorará  
y al órgano promotor sobre los aspectos esenciales que favorecen  
al euskera y recomendará su inclusión.

Una vez se disponga del informe de avance del plan o proyec-  
to, la comisión elaborará el documento de alcance y decidirá  
sobre la necesidad de realizar un estudio de impacto lingüístico.

En el caso de que se concluya que se debe realizar un es-  
tudio de impacto lingüístico, la comisión de ELE decidirá quién re-  
dactará el estudio: el personal técnico municipal, si se contrata  
a una persona experta en ELE o si se solicita a la empresa, en  
caso de que una empresa privada sea la promotora.

No obstante, la decisión final del estudio de impacto será  
del Ayuntamiento. Por ello, la Comisión de evaluación se encar-  
gará de cumplimentar los cuestionarios exigidos por la metodo-  
logía para la realización del Estudio de Impacto, proponer medi-  
das correctoras y tomar las decisiones finales.

En el caso de que la comisión ELE recibiera un estudio de  
impacto realizado por una empresa externa, sobre la base del  
mismo decidirá sobre la viabilidad del plan o proyecto en sus  
propios términos, sobre la necesidad de proponer otras medi-  
das correctoras o emitir un informe desfavorable.

#### Artículo 9. Procedimiento.

Se utilizará la metodología acordada entre la Dirección de  
Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas de  
la Viceconsejería de Política Lingüística y la Mancomunidad de  
Municipios Euskaldunes (UEMA) para la Evaluación de Impacto  
Lingüístico, no pudiendo utilizarse otras metodologías. El proce-  
dimiento será el siguiente:

9.1. Determinación del alcance del estudio lingüístico. El  
primer paso será la elaboración del documento de alcance.

A la hora de analizar si un plan o proyecto puede tener inci-  
dencia en el uso del euskera en el Ayuntamiento o en el ámbito  
de estudio, se tendrán en cuenta los siguientes indicadores:

- a) Variaciones en el número de habitantes del municipio.
- b) Modificaciones en el número de visitantes al municipio.
- c) Afecciones de otro tipo en la situación sociolingüística  
del municipio.

Una vez analizados estos indicadores, los servicios técnicos  
municipales remitirán el informe sobre el alcance del estudio  
lingüístico al órgano municipal competente para la aprobación  
sustantiva del plan o proyecto.

Baldin plan edo proiektuaren irismenari buruzko proposamenak ondorioztatzen badu ez dagoela hizkuntza-inpaktu esanguratsurik, hizkuntza-inpaktuaren azterlanik ez egiteko gomendatuko du. Aitzitik, hizkuntza-inpaktu esanguratsua dagoela ondorioztatzen badu, beharrezkotzat joko du hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

## 9.2. Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

Honako puntuak jaso beharko ditu azterlanak:

a) Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspena.

b) Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatearen kalkulua. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, ELE galdetegia beteko da. Aldagai hauek hartuko dira kontuan:

- Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
- Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.

c) Funtsezko alderdiei buruzko azterketa egiteko galdetegia beteko da. Honako eremu hauek kontuan hartu behar dira:

- Plan edo proiektu motaren ezaugarri buruzkoak.
- Planaren edo proiektuaren denbora eta espazio dimentsioak.
- Kokapenari buruzkoak.
- Planteatu diren hizkuntza-erabilerrari buruzko irizpideen gainekoak.

d) Konpentsazio-neurriak.

e) Neurri zuzentzaileak.

## 9.3. Informazioa jendaurrean jartzea, interesdunei kontsultatzea egitea eta entzunaldia.

1. Hizkuntza-inpaktuaren azterlana behin betiko onartu aurretik jendaurrean jartzeko izapidea egingo da, hasierako onepenarekin batera.

2. Gainera, jendaurreko informazioaren izapidea egiten den bitartean, udalak kontsulta egingo die Eusko Jaurlaritzako hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailari, UEMARI eta interesdunei. Kontsultak jakinarazpen baten bidez egingo dira, honako informazio hau gutxienez adierazita:

a) Hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, edo non kontsultatu daitekeen.

b) Txostenak eta ebaluazioak zer organori bidali behar zaizkion.

c) Planaren edo proiektuaren gaineko informazio garrantzitsua eskuratzeko modua.

3. Eusko Jaurlaritzan hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailak hogeita hamar egun balioduneko epea edukiko du, udalak egindako hizkuntza-azterlanaren gainean txosten bat egiteko. Era berean, interesdunek epe bera izango dute alegazioak formulatzeko. Epea zenbatzen hasiko da jakinarazpena hartzen den hurrengo egunetik aurrera.

4. Hamar egun balioduneko epean entzunaldia emango zaio sustatzaileari, baldin pertsona pribatua bada, eta interesdunei ere bai, horrelakorik badago. Epea zenbatzen hasiko da informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitzen denetik aurrera. Jasotako txostenak eta alegazioak bidaliko dizkio ELE batzordeari, jakinararen gainean egon dadin.

En el caso de que la propuesta de alcance del plan o proyecto concluya que no existen impactos lingüísticos significativos, recomendará que no se realicen estudios de impacto lingüístico. Por el contrario, si concluye que existe un impacto lingüístico significativo, estimará necesaria la realización de un estudio de impacto lingüístico.

## 9.2. Elaboración del estudio de impacto lingüístico.

El estudio deberá recoger los siguientes puntos:

a) Descripción general del plan o proyecto y previsiones sobre el tiempo de desarrollo.

b) Cálculo de la intensidad del impacto lingüístico. Para calcular la intensidad del impacto se cumplimentará el cuestionario ELE. Se tendrán en cuenta las siguientes variables:

- Impacto sobre la vida social y cultural.
- Competencia lingüística de la población o de los visitantes.
- Uso lingüístico por parte de la población o visitantes.
- Comunicación en el ámbito de la actividad o del servicio.
- Paisaje lingüístico de la zona afectada.
- Oferta lingüística en el ámbito de la actividad o del servicio.

c) Se cumplimentará un cuestionario para el análisis de los aspectos esenciales. Dentro de ese análisis se tomarán en consideración los siguientes aspectos:

- Relacionados con la naturaleza del plan o proyecto.
- Relacionados con la dimensión temporal y espacial del plan o proyecto.
- Relacionados con la ubicación.
- Relacionados los criterios de uso lingüístico previstos.

d) Medidas compensatorias.

e) Medidas correctoras.

## 9.3. Información pública, consulta a personas interesadas y trámite de audiencia.

1. Se realizarán trámite de información pública previo a la aprobación definitiva del estudio de impacto lingüístico, junto con la aprobación inicial.

2. Además, durante el trámite de información pública, el ayuntamiento consultará al departamento competente en materia de normalización lingüística del Gobierno Vasco, a la UEMA y a las personas interesadas. Las consultas se realizarán mediante una notificación que contendrá, al menos, la siguiente información:

a) Estudio de impacto lingüístico o lugar o lugares en los que puede ser consultado.

b) El órgano al que deben remitirse los informes y evaluaciones.

c) Las formas de acceso a la información relevante sobre el plan o proyecto.

3. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de normalización lingüística dispondrá de un plazo de treinta días hábiles para emitir un informe sobre el estudio lingüístico realizado por el ayuntamiento. Asimismo, las personas interesadas dispondrán del mismo plazo para formular alegaciones. El plazo comenzará a contarse desde el día siguiente a la recepción de la notificación.

4. En el plazo de diez días hábiles desde la finalización de los trámites de información pública y de consultas al departamento del Gobierno Vasco con competencias en materia de normalización lingüística y a las personas interesadas, se procederá a dar audiencia a la persona promotora, si esta fuera privada, y a las demás personas interesadas, si las hubiera. Remitirá a la Comisión de ELE los informes y alegaciones recibidas para su conocimiento.

#### 9.4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena.

1. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenean datu hauek, gutxienez, bilduko dira:

a) Planaren edo proiektuaren sustatzailea edo funtsezko organoa zehaztea, eta planaren edo proiektuaren deskribapena.

b) Informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza normalizazioaren arloko eskumena duen sailari, UEMARI eta interesdunei kontsultak egiteko izapideen emaitzen laburpena, bai eta horiek kontuan hartzeko moduaren azalpena ere.

c) Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak egin duen azterketa teknikoaren laburpena.

d) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko ezarri beharko liratekeen baldintzak eta neurriak, beharrezkoa denean.

e) Jarraipena egiteko sistema eta, beharrezkoa bada, jarraipen batzordea.

2. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egiteko epea hilabetekoa da, kontsultarako epeak amaitutakoan zenbatzen hasita. Eta, plana edo proiektua onartzeko funtsezko prozedura amaitu aurretik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena erantsi beharko da.

3. Honakoak izango dira har daitezkeen erabakiak:

– Aldeko txostena.

– Aldeko txostena, neurri zuzentzaileekin.

– Kontrako txostena, proiektua aldatzeko edo egokitzeko eskatuz.

4. Beste metodologia eta prozedura batekin burututako ebaluazio guztiak deusezak izango dira.

#### 10. artikulua. Neurri zuzentzaileak edo aringarriak.

Ezarritako ebaluazioaren emaitzaren arabera, beharrezkoa balitz, ondoren zerrendatzen diren neurri zuzentzaileak hartzeko aukera izango da, besteak beste:

1. Proiektuaren edo jardueraren izaerari lotutako neurri zuzentzaileak:

a) Harremanak erdigunean jarriko dituen neurriak: bertako herritarrekin harremanak garatzeko gune komunitarioak indartzea, etxebizitzaren sarbidea oinezkoen espazioetatik egitea, familia bakarreko edo dorre itxurako etxebizitzak beharrez ingurura egokituak egitea eta abar.

b) Zerbitzuen kudeaketa pribatua izanez gero, udalarekin hitzarmenak egitea aurreikustea.

c) Kultura, kirola eta hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinaren kudeaketa publikoa izatea.

d) Herritarren talde guztientzako lan aukerak sustatzea.

e) Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzea.

f) Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriekin lotutakoak izatea sustatzea.

g) Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea helburuen artean.

h) Antzeko beste neurri batzuk.

2. Proiektuaren edo jardueraren dimentsioari lotutako neurri zuzentzaileak:

a) Proiektuaren tamaina murriztea, esate baterako, etxebizitzaren kasuan, auzo/herri/eskualdearen beharretara neurritzea hazkundera.

#### 9.4. Informe de evaluación del impacto lingüístico.

1. El informe de evaluación del impacto lingüístico contendrá, al menos, los siguientes aspectos:

a) La identificación de la persona promotora del plan o proyecto y del órgano sustantivo y la descripción del plan o proyecto.

b) Resumen de los resultados de los trámites de información pública y de consulta al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de normalización lingüística, a la UEMA y a las personas interesadas, así como de cómo se han tenido en consideración.

c) Resumen del análisis técnico realizado por el órgano municipal encargado de la evaluación de impacto lingüístico.

d) Si proceden, las condiciones que debieran establecerse para prevenir, corregir y, en su caso, compensar los efectos adversos sobre la normalización del uso del euskera.

e) Sistema de seguimiento y, si procediera, la creación de una comisión de seguimiento.

2. El plazo para la emisión del informe de evaluación del impacto lingüístico será de un mes, a contar desde la finalización de los plazos de consulta. En todo caso, el informe de evaluación del impacto lingüístico habrá de incorporarse al procedimiento sustantivo antes de que éste concluya.

3. Las decisiones que podrán adoptarse serán las siguientes:

– Informe favorable.

– Informe favorable con medidas correctoras.

– Informe desfavorable solicitando la modificación o adecuación del proyecto.

4. Todas las evaluaciones realizadas con otra metodología y procedimiento serán nulas.

#### Artículo 10. Medidas correctoras o atenuantes.

En función del resultado de la evaluación establecida, si fuera necesario, se podrán adoptar, entre otras, las medidas correctoras que se enumeran a continuación:

1. Medidas correctoras relacionadas a la naturaleza del proyecto o actividad:

a) Medidas que pongan en el centro: reforzar los espacios comunitarios para el desarrollo de las relaciones con la población local, facilitar el acceso a las viviendas desde los espacios peatonales, en lugar de viviendas unifamiliares o en forma de torres, adaptadas al entorno, etc.

b) Prever convenios con el Ayuntamiento en caso de gestión privada de servicios.

c) Gestión pública del edificio que ofrece servicios culturales, deportivos y educativos.

d) Promover oportunidades de empleo para todos los colectivos ciudadanos.

e) Favorecer una mayor diversidad económica.

f) Fomentar que las imágenes o los lemas a utilizar estén relacionadas con sus características.

g) Que la iniciativa promueva la creación cultural local entre sus objetivos.

h) Otras medidas similares.

2. Medidas correctoras asociadas a la dimensión del proyecto o actividad:

a) Reducir el tamaño del proyecto, en el caso de la vivienda, redimensionar el crecimiento a las necesidades del barrio/pueblo/comarca.

b) Proiektuaren iraupena denboran luzatzea (adibidez, etxebizitza guztiak aldi berean egin beharrean, fase ezberdinetan egitea).

c) Tokiko beharretara egokitutako ekipamenduak aurreikustea.

d) Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten lekuak babestea edo hobestea.

e) Espazio publiko irekiak eremu askotan dispersatzea aurreikustea.

f) Tokiko beharretara neurritutako lanpostuak sustatzea.

g) Bisitari kopuru jasagarria sustatzea: turismoa hizkuntz gutxituetako herrialdeetan sustatzea.

h) Antzeko beste neurri batzuk.

3. Proiektu edo jardueraren lekukotzeari lotutako neurri zuzentzaileak:

a) Ezagutzan eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea.

b) Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea.

c) Erabileran eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea.

d) Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea.

e) Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk inguruan izatea, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak.

f) Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko guneetara bideratzea.

g) Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko guneetan jasotzea aurreikustea.

h) Antzeko beste neurri batzuk.

4. Hizkuntza irizpideei lotutako neurri zuzentzaileak:

a) Etxebizitza eskuratzeko bertakoei lehenetsua ematea.

b) Herriko langileei lehenetsua ematea.

c) Proiektuaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenetsiko da.

d) Kontratututako langileak euskaldunak izatea.

e) Hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatzea, euskarari lehenetsua emanez.

f) Euskara plana edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenetsua.

g) Hizkuntza-paisaiarako irizpideak ezartzea, euskararen erabilerari lehenetsua emanez eta erdarak beharrezkoa den kasuetan soilik erabiliz.

h) Bertako toponimia erabiltzea.

i) Komunikazio irizpideak finkatzea, euskarari lehenetsua emanez.

j) Euskarazko eskaintza edo eskaintza elebiduna bermatzea.

k) Antzeko beste neurri batzuk.

5. Aurreko ataletako neurri zuzentzaileez gain, aurkeztutako proiektu edo jardueren gainean ezarri daitezkeen neurri osagarri eta aringarriak:

a) Herritarren ahalduntze linguistikoa eta formazioa lantzea.

b) Alargar la duración del proyecto en el tiempo (por ejemplo, realizar todas las viviendas en fases diferentes en lugar de hacerlo simultáneamente).

c) Prever equipamientos adecuados a las necesidades locales.

d) La protección o preferencia por los lugares de importancia natural, histórica o cultural de la iniciativa.

e) Prever la dispersión de espacios públicos abiertos en múltiples zonas.

f) Promoción de puestos de trabajo adaptados a las necesidades locales.

g) Promover un número sostenible de visitantes: fomentar el turismo en los países de lenguas minoritarias...

h) Otras medidas de naturaleza análoga.

3. Medidas correctoras asociadas al testimonio establecimiento del proyecto o actividad:

a) Desplazar para que tenga menor impacto negativo al conocimiento.

b) No desarrollar todo el proyecto en un mismo lugar, sino dispersarlo en diferentes ámbitos.

c) Desplazar para que tenga menor impacto negativo en el uso.

d) No desarrollar todo el proyecto en un mismo lugar, sino dispersarlo en diferentes ámbitos.

e) Proximidad de espacios públicos abiertos a otras instalaciones como comercios, biblioteca, casa de cultura, centros educativos y centros comunitarios de cohesión social.

f) Orientar la construcción de nuevas empresas hacia zonas de baja fragilidad lingüística.

g) Prever la recepción de visitantes en zonas de baja fragilidad lingüística.

h) Otras medidas similares.

4. Medidas correctoras en relación con los criterios lingüísticos:

a) Acceso preferente a la vivienda para los vecinos y vecinas del municipio.

b) Dar prioridad al personal trabajador del municipio.

c) Se priorizará la publicidad del proyecto en los medios de comunicación locales y en euskera.

d) Que el personal contratado sea euskaldun.

e) Fijar criterios de uso lingüístico, dando prioridad al euskera.

f) Priorizar planes de euskera o proveedores con certificados lingüísticos.

g) Fijar los criterios de paisaje lingüístico, dando prioridad al euskera y utilizando otras lenguas únicamente cuando sea necesario.

h) Utilizar la toponimia local.

i) Establecer criterios de comunicación, dando prioridad al euskera.

j) Garantizar una oferta en euskera o bilingüe.

k) Otras medidas similares.

5. Además de las medidas correctoras de los apartados anteriores, las medidas complementarias y paliativas que pueden implantarse sobre los proyectos o actuaciones presentados:

a) Trabajar el empoderamiento lingüístico y la formación de la ciudadanía.



- b) Aisialdiko (kirol eta kultur) eskaintza osoa euskaraz garatzea.
- c) Etorri berrientzat integrazioarako neurriak (hezkuntza...) eta planak garatzea.
- d) Euskara ikasteko erraztasunak ematea herritarrei.
- e) Etorri berrien euskalduntzea eta beharrezko errefortzua bermatzea.
- f) Harrera-planak egitea.
- g) Mintzapraktika programa garatzea.
- h) Sentsibilizazio/motibazio kanpainak egitea.
- i) Euskarazko doako zerbitzua (itzulpenak, fakturatakoak, ohartxoak...) eskaintzea.
- j) Irizpideak betetzen ez direnerako isunak jartzea.
- k) Antzeko beste neurri batzuk.

*11. artikulua. Dokumentazioa.*

Ebaluazioaren prozeduraren amaieran, gutxienez, honako dokumentazioa jasoko da:

- Irismen dokumentua.
- Hizkuntza-inpaktuaren azterlana.
- Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren txostena.

*Azken xedapena. Indarrean jartzea.*

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera jarriko da indarrean, testu osoa argitaratu ondoren eta lege horren 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.

- b) Desarrollar toda la oferta de ocio (deportivo y cultural) en euskera.
- c) Desarrollar medidas de integración (educación...) y planes para personas recién llegadas.
- d) Facilitar a la ciudadanía el aprendizaje del euskera.
- e) Garantizar la euskaldunización y el refuerzo necesario de las personas recién llegadas.
- f) Realizar planes de acogida.
- g) Desarrollar el programa de mintzapraktika (práctica oral).
- h) Realizar campañas de sensibilización/motivación.
- i) Ofrecer un servicio gratuito en euskera (traducciones, tacsos de facturas, notas...).
- j) Sanciones por incumplimiento de criterios.
- k) Otras medidas similares.

*Artículo 11. Documentación.*

Al final del procedimiento de evaluación se recogerá, al menos, la siguiente documentación:

- Documento de alcance.
- Estudio de impacto lingüístico.
- Informe de evaluación del impacto lingüístico.

*Disposición final. Entrada en vigor.*

La presente ordenanza entrará en vigor de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, una vez publicado completamente su texto y transcurrido el plazo de 15 días hábiles previsto en el artículo 65.2 de la citada ley.